ASE
BIZI
GUREKIN ZURE PREMIAK ASE

# SEGMENTAZIOA

Aniztasun funtzionalaren barruan adimen aniztasuna, aniztasun fisikoa eta aniztasun sentsoriala bereizten dira, bakoitzak bere ezaugarri espezifikoekin.

Gure Ase Bizi elkartea desgaitasun fisikoa duten pertsonei zuzenduta egongo da. Uste dugu premia handiak dituen kolektiboa dela sexu-heziketari dagokionez, eta bere ezaugarri espezifikoetara egokitutako sexu-jostailuak izateko beharra dutela.

Beti kontuan hartuta pertsona bakoitza desberdina dela eta haien beharrak aldatzen joaten direla adinaren, egoera pertsonalaren, sexu-identitatearen edo dituzten beharren arabera.

Hori dela eta, arreta pertsonalizatua eskainiko diegu desgaitasun fisikoa duten pertsonei, haien senideei, inguruko pertsonei edo beste pertsona interesdun batzuei.

